BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1346

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2012ko urriaren 30eko Ebazpena aldatzeko dena. Ebazpen horren bidez, dei egin zen Arte Plastiko eta Diseinuko Erdi- eta Goi-mailako Lanbide-ikasketetan, Erdi- eta Goi-mailako Kirol-ikasketetan eta Musikako Goi-mailako Arte-ikasketetan eta Diseinuko Goi-mailako Arte-ikasketetan sartzeko ezarritako baldintzak egiaztatzeko heldutasun-probetarako, 2013-2014 ikasturterako.

Indarrean den legediak izendatzen dizkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2012ko urriaren 30eko Ebazpenaren bigarren puntuko 3. atala «Proben eragina» aldatzen da (2012ko azaroaren 28ko EHAA, 230. zk.). Ebazpen horren bidez, dei egin zen Arte Plastiko eta Diseinuko Erdi- eta Goi-mailako Lanbide-ikasketetan, Erdi- eta Goi-mailako Kirol-ikasketetan eta Musikako Goi-mailako Arte-ikasketetan eta Diseinuko Goi-mailako Arte-ikasketetan sartzeko ezarritako baldintzak egiaztatzeko heldutasun-probetarako, 2013-2014 ikasturterako; honela esan behar du atal horrek:

«Aipatutako maila akademikoen ordezko heldutasun-proba gaindituz gero, hurrenez hurren, Arte Plastiko eta Diseinuko lanbide-ikasketak eta Kirol-ikasketak egiteko aukera emango da, maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 17. artikuluak eta urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 32. artikuluak ezarritakoaren arabera, betiere, sarrerako berariazko proba gainditu ostean».

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 8a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.